

GEROIA

NAFARROAKO | **SOCIALVERDES**
SOZIALBERDEAK | DE NAVARRA
EUROPAN | EN EUROPA

PONENTZIA MARKOA

Biltzar Eratzaileak 2020ko abenduaren 19an onetsia

AURKIBIDEA

1. Printzipio ideologiko Sozialberdeak	3
2. Dekalogoak	9
3. Adierazleak	11

A. PRINTZIPIO IDEOLOGIKO SOZIALBERDEAK

1) GURE DIAGNOSIA

“**Jasangarritasuna, XXI. mendearen politikaren ardatz**”. Horra hor gure alderdiaren estatutuetan idatzirik dauden lehen hitzak.

Egungo eredu sozioekonomikoa jasanezina da, eta natur baliabideak eta Ongizate Estatua agortzera garamatza. Egun, osasunean eta arlo sozioekonomikoan dugun krisia klima-aldaketak eragindakoari lotzen zaio. Hori dela eta, argi dugu ez dutela balio azken hamarkadetan aplikatu diren errezetek. Hori ere onartzen dute 2008ko krisian aplikatutako austeritate politikak bultzatu zituztenek, merkatuaren uztarpean jarri gintuztenek. Bada, horixe da gure bultzagarri onena **eredu sozioekonomiko berri baten proposamenean** aurrera jotzeko, esparru guztietan egiazko jasangarritasuna ziurtatuko duena. Jar dezagun zalantzan egungo ekoizpen-eredua, gure mundua agor ez dadin: egin dezagun politika sozialberdeen alde!

2) JASANGARRITASUNA, GURE POLITIKEN ARDATZ

Hori dela eta, baliabide guztiak egiazki mugatuak direla abiaburu harturik, ezinbestekotzat jotzen dugu **jasangarritasunaren** alde egitea **gure politikak ardazteko**:

Ongizate Estatutuaren jasangarritasuna. Ongizatea era zabalean harturik, hau da, adibidez, osasun arreta bermatua egotea, ingurune osasungarriak herritar guztientzat, hezkuntza bizitza osoan zehar edota kulturarako zein aisiarako eskubidea, zenbait esparru nabarmen aipatzearen. Gizartean adostasun zabala izanik ere, jasangarritasuna gero eta gehiago jartzen ari da zalantzan, gizartean diren desberdintasunak murrizteko konpromiso handirik ez duten politiken bidez eta, era berean, jasangarritasuna oztopatzen duten erronka demografikoen bidez (biztanleria zahartzea, adibidez). Horren ondorioz, gizarte itun batzuk gero eta zailagoak dira betetzeko, hala nola enplegu egonkor eta duinari dagozkion itunak, etxebizitza egokiari buruzkoak eta genero berdintasunari dagozkionak. Edo hortxe ere migrazio-ituna dago, edo jende guztiak behar diren baliabideak eskura izatea duintasunez bizitzeko, edo belaunaldien arteko ituna, hots, bai haurrek eta nerabeek maila pertsonalean

eta bizitzan erabat garatzeko dituzten eskubideak, bai adinekoek dituzten eskubideak beren egoerarekin bat heldu den eta beraiek nahi duten zainketa jasotzeko; edo desgaitasuna duten pertsona guztiek ondasun sozial guztiak eskuratzeko duten eskubidea herritar guztien baldintza berdinetan

Ongizate Estatu jasangarria egiazki gauzatuko bada eta zerbitzu publikoa, unibertuala, birbanatzailea eta desberdintasun sozialen orekatzailea izanen bada, gauza izan beharko dugu sektore pribatuak eragiten duen dinamismo berritzailea eta ekonomikoa uztartzeko oreka finantzarioan dauden erakunde publiko konprometitu eta birbanatzaileekin. Hori jasangarritasunez nola gauzatu dugu erronka nagusietariko bat.

Ingurumeneko jasangarritasuna. Mundu mailako larrialdiari egin behar zaio aurre, berotze globalak eragindako klima-aldaketa baitugu aurrean, gizakiak erregai fosilak errez sortu duena. Gure gehiegikeriak direla eta, beldur gara ez ote diren natur baliabideak agortuko, ez dakigu zer egin sortzen dugun hondakin pila izugarriarekin, eta klima-aldaketaren ondorio gogor-gogorreari aurre egin beharko diegu. Bada, egituretan, ohituretan eta kulturetan aldaketa nabarmenak eginez soilik emanen diogu egoerari itzulia.

Jasangarritasun energetikoa. Energia-ekoizpena, gaur egun, CO2 iturri ikaragarria da eta, gainera, gastu nagusietako bat da ekonomian. Hori dela eta, *eraginkortasun energetikoa* dagoeneko gobernantzaren muinetako bat da, eta udalerrri asko dira buru aldaketa horretan.

Plan zuzentzaile energetikoek ekarpenik handiena egiten diote ingurumeneko eta aurrekontuko jasangarritasunari, eta ekonomia zirkularren aldeko apustuaren funtsezko gakoetako bat dira: kontsumoaren murrizketa, energia berriztagarrien sustapena, lehentasunezko energia-iturriak izateko eta, horren ondorioz, erregai fosilen erabileraren eta CO2 isurien murrizketa, autohornikuntza energetikoa, mugikortasun berde berria, eraikinak birgaitzea... Horiek guztiak jardunbide egokien adibideak dira, eta bultzatu behar dira.

Aurrekontuko jasangarritasuna, egungo osasun egoerak agerian jarritakoa, eta diru-sarrera nahiz gastu publikoak ukitzen ditu. Indarrean den zerga-egiturak zailtasun handiak ditu aurrekontu-oreka bermatzeko. Izan ere, egungo zerga-sisteman betidanik izaniko zutabeen (sozietate zerga edota klase ertainen ekarpena) pisua erori egin da, hainbat arrazoi direla medio: ez da behar adinako egokitzapenik egungo errealitate ekonomikora edota enpleguaren zati handi baten prekarizazioa, eta horren ondorioz, lan-merkatua gero eta dualagoa eta desberdinagoa sortu da.

Hori ikusirik, esparru fiskala bere osoan berrikustea proposatzen dugu. Hau da, ikuspegi progresiboan oinarriturik, egungo erronka eta aukeretara egokitzeko gauza izan behar du, hala nola ekonomiaren digitalizaziora edo fiskalitate berde berriak eskaintzen dituen aukeretara.

Sistema ekonomikoaren eta sozialaren jasangarritasuna, egungo eredu gero eta urrunago baitago jendearen egiazko beharretatik; egun, arlo finantzarioa ekoizpenaren gaineratik baitago argi eta garbi, eta horren azpian, gizarte kohesioa desagiteaz gain, gizarte desberdinkeriak handitzen dira, bai eta lurralde barneko eta lurralde arteko desoreka ere. Gainera, ekonomia linealaren kontsumo neurrigabea dago oinarritua (*erosi, erabili, bota, birjarri*), eta argi eta garbi dago hori ez dela bateragarria planetaren muga fisikoekin. **Ekoizpen eta kontsumo sistema berri** bat behar dugu, gure ekonomien eta gizarteen **garapen jasangarria** bermatuko duena. Ekonomia garatzeko politika jasangarriak bultzatu behar ditugu, ekonomia zirkularrean oinarrituak (Murriztu, Berrerabili, Birgaitu, Birziklatu), betiere aldaketa jasangarri horren aldeko jakintza, ikerketa eta berrikuntza oinarri harturik, industria berdeei eta digitalizatuei gero eta leku handiagoa utzita. Hori guztia, herritarren zorientasunaren bilaketa gogoan hartuta, eta horrek ez du zertan loturik egon kontsumoarekin.

Sistema demokratikoen jasangarritasuna, balio demokratikoak eta pertsona guztiendako giza eskubideak zalantzan jartzen dituzten populismoek mehatxatuak, egia-ostea eta epe-laburra nagusi diren honetan. Gure herrian arloz arlo den aniztasuna are gehiago errespetatzearen aldeko apustu zintzo eta iraunkorrek bakarrik bermatuko digu ezberdinen arteko egiazko bizikidetzak, etorkizunari begira; aniztasun ideologikoa, identitarioa, kulturala, generokoa, arrazakoa, etnikoa eta hizkuntzazkoa. Bide horretan, **kultura** oinarritzko zutabea da, funtsezko ekarpena egiten baitu gizarte garaikidearen konplexutasuna erakusteko eta munduan jokatzeko dugun modua eragiteko. Bake-kultura, sormena, jakintza, kulturen arteko harremana, ondarea eta eskubide kulturalak, den-denak, giza garapen jasangarriaren osagai nagusiak dira.

3) GURE PROPOSAMENA: EKONOMIA ZIRKULARRA

Aurreko guztia gogoan, **Geroa – Sozialberdeak** alderdian **proposamen** praktikoak eta erabilgarriak egin beharra sentitzen dugu egoera larri honetatik aterako bagara. Ez gaude ados politikagintzan hala ezkerrean nola eskuinean dauden jarrera egiazki kontserbadoreekin. Jarrera horiek –azken buruan– gelditasuna dute ondorio:

Izan ere, eskuin politikoan eta ekonomikoan diharduten indarrek garapen ekonomiko kontrol gabea bultzatzen jarraitu nahi dute, gizarte ongizatearen eta ingurumeneko jasangarritasunaren helburuetatik urrun. Alderdi horientzat ez dira kezka-iturri, adibidez, enpleguaren egonkortasuna eta duintasuna, aurrekontuaren oreka, ingurumenaren errespetua, gizarte kohesioa, aukera berdintasuna, gizarte mobilizazioa edota nafar aniztasuna egiazki errespetatzea.

Ezkerreko sektore jakin batzuen jarrera ere kontserbadorea da, gusturago iraun nahi baitute dogmen eta inertzien erosotasunean, iraun ere berrikuntza eta aldaketa ororen kontrako jarrera zurrunean... noiz eta deus ere ez aldatzea amildegirantz jotzen segitzea den honetan. Ez gaude ados konformismo horrekin, geldirik egotera baikaramatza arlo guztietako eruedetan, hots, mugikortasunean, ekoizpen industrialean, eta ekintzailatza, ikerkuntza eta garapena sustatzen duten sektore jasangarrien sorkuntzan. Horiek oro egiazko aukerak izan daitezke enplegu duina eta kalitatekoa sortzeko, baldin eta erakunde publikoak eta pribatuak ausartzen bagara itun eta adostasun berrietarantz aurrera jotzera. Horrek eskuzabaltasun handia beharko du, elkarri entzutea, enpatia, formula berriak eta irudimentsuak ematen saiatzeko, hori beharrezkoa baita egun bizi duguna bezalako arazo berriei aurre egiteko.

Argi dugu Ongizatearen Estatutik datozen hobekuntza sozialek garapen ekonomikoa behar dutela, eta argi dugu, halaber, garapen ekonomikoak ez duela zentzurik, oreka sozialaren eskutik ez badator. Hori guztia, oinarrizko baldintza bat erdigunean jarrita, hots, gure planetaren ingurumen-jasangarritasuna gure politiken erdigunean jarrita. Horrenbestez, eta zati ezberdinetan zatitzearen tentazioaren aurrean, **“sozialberdea” izatea gauza bakarra da**, kontzeptu politiko zatiezina da, eta sentiberatasun soziala, garapen ekonomikoa eta ingurumenaren errespetua uztartzeaz gain, **proiektu guztien jasangarritasuna** jartzen du gure pentsamoldearen, gure jarreraren eta gure politika publikoen ardatzean. Horrek esan nahi du eragile guztiek aldaketa sakona egin beharko dutela kulturen, mentalitatean eta bizimoduan. Argi izan behar dugu **ingurumenaren defentsak eta desberdinkeria sozialen murrizketak eskutik helduta joan behar dutela.**

Sozialberde izatea, beraz, **eredu berri bat da, Europar Batasunean** bultzatzen ari den **Itun Berdearen** eskutik helduta datorrena. Horren haritik, eta jasangarritasuna arlo guztietan bermatzera eramanen gaituzten politika berriak finkatze aldera, funtsezkoa da Europara begiratzea eta harekin zuzenean harremanetan aritzea eskura ditugun espazioen bidez: Akitania – Euskadi – Nafarroa Euroeskualdea, Pirinioetako Lan Komunitatea edota Eskualdeen batzordea. Une honetan Europa baita aukera gune nagusia orientazio politikoari

eta ekonomikoari dagokionez. Izan ere, Europa garatzeko lerro nagusiek (New Green Deal / Plan Next Generation EU / EBko 2021-2027 aurrekontua) energia, ekoizpen eta kontsumo prozesuen egiturazko eraldaketa erakusten dute eta, haiekin batera, duela hamarkada askotatik hona indarrean diren paradigmen eraldaketa.

Horrenbestez, **eredu sozioekonomikoa errotik aldatzea** proposatzen dugu, ingurumeneko jasangarritasuna eta desberdinkeria sozialen aurkako borroka bermatuko dituen, betiere hiri eta herri jasangarrien baitan. Eredua erakunde publikoek gidatu behar dute, gizarte eragileekin, sektore pribatuarekin eta herritar guztiarekin lankidetzan estuan, betiere gure planeta errespetatuko duten jarduerak oinarri harturik, bai eta lan harreman bidezkoak eta ekitatiboetan oinarriturik ere. Neurriko proiektuen alde egingen duen eredia, autosorkuntza eta autokontsumo arloko helburuak gogoan, baliagarriak energia deskarbonizatua eta irisgarria sortzeko eta **adierazle sozialberdeak** betetzeko. Aurkezpen honetara ekarri ditugun adierazleak Nafarroako egoerara egokitu ditugu eta, ikuspuntu sozialberdetik, **Agenda 2030en** egokitzapena dira.

3.1 NOLA GAUZATUKO DITUGU?

Paradigma berri horren oinarrian **ekonomia zirkularra** dago. Ekonomiaren betiko ikuspegi lineala alde batera utzita, baliabide guztiak ahalik eta eraginkortasun handienarekin erabiltzea proposatzen du, hainbat kontzeptu txertaturik, hala nola murriztu, berrerabili, konpondu, birziklatu, lagundu, alokatu edo partekatu. Kontzeptu horiek bizitzaren prozesu guztietan aplikatu behar dira, ez bakarrik ekonomiari lotutakoetan, eta horretarako, ezinbestekoa da **adierazleez** mintzatzea, gure helburuak noraino bete diren jakiteko.

Ekonomia zirkularren printzipioak **jarduera ekonomiko** nagusietan ari dira jada aplikatzen, hala nola energia-iturri berriztagarrietan, komunikazioetan, IKTeetan, mugikortasun eta logistika arloko eredu aurreratuenetan edota hirigintza eredu berrietan, eta beste arlo batzuetan ere badute aukerarik, nekazaritza-abeltzaintzan, adibidez. Haietan guztietan funtsezkoa da **azpiegitura zirkular berriak** sortzea, deszentralizatuak eta horizontalak, sare txikiz osaturiko sare ireki bat sortzeko gauza izanen direnak, maila globalean etengabe interkonektaturik egoteko modukoa.

4) PARADIGMA BERRI BATERAKO POLITIKA SOZIALBERDEAK

Eraldaketa izugarri hori aurrera eramate aldera, **garapen jasangarria** bultzatuko duten **politika sozialberdeak behar ditugu**, egungo beharrak asetze aldera baina etorkizuneko belaunaldien beharrak arriskuan jarri gabe. Garapen kritikoa,

“premia” kontzeptua bera ere zalantzan jarriko duena, zertarako eta baliabide mugatuko planetak eskaintzen dituen aukeretara egokitzeko.

Proposamen sozialberdeak, hortaz, **bizimodua sakon aldatzea** dakar berarekin, **baliabideak era jasangarriagoan eta lankidetzazkoagoan erabil ditzagun**, egungo kontsumo neurrigabea murriztu eta berrorientatu dezagun, produktuen bizitza-zikloa ahalik eta gehien luzatuta, produktuak eraginkortasun energetikoarekin bat ekoiztuta eta erabilia, zero kilometroko politikak eginda, erabilera erosketaren gainetik jarrita edota hondakinak eraginkortasunez eta efizientziaz kudeatuta. Proposamen sozialberdeak, aldi berean, baliabideen birbanaketa dakar berarekin, gizarte anitz baten gizarte kohesioaren indargarri, beldurrik gabe proposamen ausartak egiteko enplegua banatzeari begira, edota jendearen ongizate materiala neurtzeko parametro berriak erabiltzeari begira.

Horrenbestez, **gizarte kontratu berria** proposatzen dugu, funts hauetan oinarriturik:

- Adostasuna herritarren eskubideen eta betebeharren inguruan
- Adostasun publiko-pribatua, elkarrekiko aitorten berri batetik berreraikitzea.
- Belaunaldien arteko adostasuna.
- Hazkunde ekonomiko lehiakor klasikoaren paradigma birplanteatzea eta lankidetzazko sareetara jotzea, bai eta ekonomia sozialaren protagonismo handiagoa ere.
- Lurralde adostasuna, hirien eta herrien arteko orekan oinarritua, bai eta Nafarroako eskualdeen artekoan ere.
- Identitateen arteko adostasuna.
- Adostasun ideologiko adierazgarria, aurreko puntuen gaineko adostasunen ondoriozkoa.

2) DEKALOGOA

1- **Egungo eredu sozioekonomikoa agortua dago eta erabateko aldaketa** behar da.

2- Indarrean dagoen **ekoizpen- eta kontsumo-eredua aldatzeaz gain**, pertsonen **bizimodua ere aldatu** beharra dago.

3- Aldaketak enpresei ere eraginen die. Hori dela eta, enpresen **demokratizazio-prozesuak** bultzatzea proposatzen dugu, eta langileek enpresen garapen eta etorkizuna finkatuko dituzten erabakietan **parte har dezaten** sustatzea. Era berean, elkarriketa sozialean eta negozioazio kolektiboan oinarrituta, enpresako mailen arteko soldatetan diren alde handiegiak murrizteko borondatea zaindu behar da.

4- **Jasangarritasunaren aldeko itun handi** bat proposatzen dugu, adostasun politiko eta instituzional handiena ekarriko duena, bai eta gizarte osoarena ere. Itun handi hori **belaunaldien arteko adostasunean** oinarritu behar da nahitaez, etorkizuneko belaunaldien beharrak aseko direla bermatuta.

5- Gure helburua **Ongizate Estatu** anbiziotsu bat finkatzea da, jasangarritasunaren 4 ardatzak ziurtatuko dituena: hau da, **jasangarritasun soziala, ingurumenekoa, energetikoa eta aurrekontukoa, balio eta sistema demokratikoen** esparruan. **Nafarroako autogobernua** politika publikoen funtsezko oinarria da.

6- **Emakumeen eta gizonen egiazko berdintasun eragingarria** sustatuko duen Nafarroan sinesten dugu, **aniztasuna** landu beharreko balioztat jotzen duena, eta horrek gizarte bidezkoago eta ekitatiboagoa ekarri beharko du, bai eta lankidetzan eta elkarrekiko akordioan oinarrituriko balioetan aberatsa den gizartea ere.

7- **Nola gauzatu** zehazte aldera, Europar Batasuneko erreferentziazko **adierazleen** zerrenda ekarri dugu, Nafarroako egoerara egokituta eta NBEren Garapen Jasangarriko Helburuetan oinarrituta.

8- **Ekonomia Zirkularra** erreferentetzat hartuta: Urrezko Lau arauak, hau da, kontsumoa murriztea, berrerabiltzea, birgaitzea, birziklatzea; berriztagarriak sustatzea, lehentasunezko energia-iturri gisa; energia-eraginkortasuna eta auto-hornikuntza energetikoa, azpiegitura deszentralizatu eta horizontal berrien

bidez; klima-neutraltasuna, erregai fosilen erabilera eta CO2 isuriak murriztuta; mugikortasun berde berria; eraikuntza jasangarria; zero kilometroko politikak; hondakinen kudeaketa eraginkorra eta efizientea... **Ekonomia Sozialaren** jarduera asko erabilita.

9- Aldaketa hori Nafarroako **gizarte- eta lurralde-kohesiotik** proposatzen dugu, betiere **desberdinkerien aurkako borroka** eta jarrera **munizipalista** sendoa erdigunean jarrita. **Tokioa** dena **globala** denarekin indartuz eta lotuz (geure kultura eta **euskara** erreferentzia gisa), **Europako beste eskualde** batzuekin elkarlan estuan, bai eta **Europar Batasuneko** erakundeekin ere.

10- **SOZIALBERDEA** izatea Europako New Green Deal edo Itun Berri Berdearen eskutik joatea delako, **gizarte oreka garapen ekonomikoarekin** eta **ingurumeneko jasangarritasunarekin** uztarturik.

SOZIALBERDEA izatea **adostasun berriak** eraikitzea da giza beharraren kontzeptuaren beraren inguruan, egungo erronka demografikoa eta ekologikoa egokituta. Adostasun publiko-pribatu berriak, betiere barne harturik herritarren eskubide eta betebeharrei, enpleguari eta bizikidetzaren elkarrekin eraikitzeari buruzko gogoeta. Landa-eremuaren eta hiri-eremuaren arteko lurralde adostasunak, belaunaldien artekoak, migrazioaren ingurukoak, identitateen artekoak, ideologikoak... nafar gizarte enpatikoagora hurbilduko gaituztenak, bere dibertsitatea elkartasunez kudeatzen jakinen duena... egiazki jasangarria izanen dena.

3) ADIERAZLEAK

SARRERA

Hona hemen “Adierazleen” agiri hau. Tresna original eta oinarrizkoa da, Geroa – SozialBerde alderdiak bizitzaren arlo guztietan jasangarritasunarekin duen konpromisoaren adierazgarri.

Adierazleek hizkuntza berria dakarte eta lagungarriak zaizkigu politika publikoak alor bakoitzean nola joratu nahi ditugun objektibatzeke, zehazteko. Funtsezkoa da azaltzea non dagoen desberdintasuneko puntu bakoitza eta huraxe nola hobetu daitekeen, desberdintasun hori nola neurtu eta zer helburu ezartzen ditugun, desberdintasunak konpontzeko neurri posibleak proposatze aldera.

Nafarroa osoan diren arrakalak ikusteko aukera ematen digute, eta aukera ere, gure egoera kanpora begira (beste lurralde batzuekiko alderaketa eginez) eta barnera begira alderatzeko, Nafarroako eskualdeen artean izan daitezkeen desorekak neurtuz.

Hainbat eragilek izan ohi duten erosotasunaren aurrean, behin eta berriz itxura hutsean aritu baitira baina gauzak egiazki betetzeko aukerarik gabe, Geroa – SozialBerdeok nafar gizarteari eskaintzen dizkiogun adierazleak gure eskaintza politikoaren benetako “bideragarritasun plana” dira. Adierazleek funtsezko garrantzia dute Geroa – SBerentzat; horregatik, gure helburua alderdien arteko adostasuna bultzatzea da haien inguruan.

Horretarako, **mapak** eginez lan egiten dugu, egun diren arrakalez mintzatuko zaizkigun mapak, eta hortik abiatu, arrakalak nola saihestu. **Eredu** bat dugu (**ekonomia zirkularra**) eta horrekin bat egitea proposatzen dugu arrakalak ixteko, esparru bakoitzean aplikatu beharreko proposamen zehatzen bidez.

Sarrera honi jarraitzen zaizkion orrialdeetan, gure pausoen gidari nagusia erakutsiko dugu lehenik, hots, Nazio Batuen Erakundeko **Garapen Jasangarriko Helburuak**. Horien ondotik, eta lotura estuan, helburu horiek lortzeko tresnak, hau da, arestian aipaturiko adierazleak, hiru motatan banaturik: **adierazle sozialak, ekonomia zirkularreko adierazleak, ingurumeneko adierazleak**. Jakina, guztiak ere sexuaren, adinaren, arrazaren, landa-eremuaren... arabera, politika publikoetan horiekiko eta beste gai batzuekiko interseksionalitatea sartzeko asmoz.

- **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK-GJH**

1. POBREZIAREN AMAIERA
2. ZERO GOSEA
3. OSASUN ONA ETA ONGIZATEA
4. KALITATEKO HEZKUNTZA
5. GENERO BERDINTASUNA
6. UR GARBIA ETA SANEATUA
7. ENERGIA GARBIA ETA ESKURAGARRIA
8. LAN DUINA ETA GARAPEN EKONOMIKOA
9. INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA JASANGARRIAK
10. DESBERDINTASUNEN MURRIZKETA
11. HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK
12. EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK
13. EKINTZA KLIMATIKOA
14. ITSAS AZPIKO BIZIA, OZEANOAK ETA ITSASOAK
15. LURREKO EKOSISTEMEN BIZIA, BIODIBERTSITATEA
16. BAKEA, JUSTIZIA ETA ERAKUNDE SENDOAK
17. LANKIDETZA, HELBURUAK BETETZEKO

- **ADIERAZLE SOZIALAK**

1. **OSASUNAREN ZAINKETA**

- Adierazleak:

- Aurrekontua Osasunean, Nafarroako BPGaren aldean.
- Gastua osasun arretan pertsona bakoitzeko, Ospitaleko Arretan eta Lehen Laguntzan egindako gastua banatuta.
- Bizitza osasungarriko urteak 65 urtetan.
- Bizi-itxaropena 65 urtetan.
- Itxaron zerrendak.
- Osasunaren eragileak.
- Bizimoduak eta portaerak osasunean
- Elikadura eta elikagai-segurtasuna.
- Osasun azpiegituren ratioak biztanleriarekiko.
- Osasun langileen ratioak biztanleriarekiko

- Urteko suizidio-tasa 100.000 bizilagun bakoitzeko, adinaren arabera banatuak
- Zerbitzu-azpiegituren ratioak osasun mentalaren arloan.
- Arreta anbulatorioaren estaldura eta intentsitatea osasun mentalean.
- Berariazko programak bereziki ahulak diren taldeendako.
- Afekzio epidemiologikoaren tasa / hilkortasuna.
- Sexu eta ugalketa osasuna artatzeko berezko programak biztanleria sektore guztientzat eta adin guztietako jendearentzat.

2. HEZKUNTZA, TREBETASUNAK ETA IKASKUNTZA ETENGABEA

- Adierazleak:
 - Eskola-abandonuko tasak.
 - Prestakuntza bizitza-zikloan zehar.
 - Gazteen eta gainerako herritarren goi-mailako hezkuntza maila.
 - Gaikuntza era askotako gaitasunetan.
 - Ikasleen eleaniztasun maila.
 - Genero-arrakala hezkuntzan.
 - Ikasleen hezkuntza-maila Nafarroako eremuen arabera.
 - Desgaitasuna duten adingabeak ikastetxe arruntetan eta ikastetxe berezietan.
 - Desgaitasuna dutenek lortu dituzten hezkuntza-mailak.

3. BIZITZA ETA POBREZIA BALDINTZAK

- Adierazleak:
 - Pobrezia indizea.
 - Pobrezia larriaren indizea.
 - Gabezia material larriaren tasa (etxebizitza, ura-elikagaiak, jantziak...)
 - Lan-intentsitate oso apaleko familia-unitateak.

- Etxegabetze kopurua.
- Pobrezia energetikoak ukitutako etxebizitza kopurua

4. POLITIKA PUBLIKOEN ERAGINA POBREZIAREN MURRIZKETAN

▪ ADIERAZLEAK:

- Transferentzia sozialek (pentsioez bestelakoak) pobreziaren murrizketan duten eragina.
- Zenbat etxebizitza publiko alokairuan.
- Eraginkortasun eta jasangarritasun energetikoan goi-parametroak dituzten etxebizitzaren ehunekoa.
- Sailkapena, gastu publikoaren arabera.
- Ordezkapen-tasa agregatua pentsioetarako.
- Nafarroako Errenta Bermatuaren onuradunen laneratze-tasa.

5. LAN MERKATUAREN EGITURA ETA DINAMIKA

▪ Adierazleak:

- Jarduera-tasa.
- Langabezia-tasa, egiturazko egoera berriazkoen arabera banatua (generoa, adina, hezkuntza-maila, migranteak, desgaitasun-egoera, etab).
- Iraupen luzeko langabezia-tasa.
- Inolako prestaziorik jasotzen ez duten langabeen tasa.
- Kontratuen batez besteko iraupena.
- Lanaldien iraupena. Nahi gabeko lanaldiaren partzialtasuna.
- Lan-istripuak.
- Lan-harremanetarako eta enpresa-gobernantzarako eredia.
- Langileen parte-hartze maila kudeaketan, jabetzan eta emaitzetan.
- Lan merkatua suspertzeko neurrietan diren parte-hartzaileak.
- Aldi baterako kontratuak mugagabeetara pasatzeko trantsizio-tasa.
- Lan erreproduktiboaren eta produktiboaren zenbaketa eta banaketa-politikak.

- Nafarroako soldatetan batez beste dagoen aldea, enpresa bereko soldata handienaren eta soldata txikienaren artean.
- Telelanaren neurtzaileak.
- Aparteko orduen tasa.
- Lanpostuak enplegu babestuan: Gizarte Enplegu Babestua, Laneratze Enpresak, Laneratze Zentroak, Enplegu Lagundua eta beste.
- Zenbat kontratu egin diren SNE-LANSAREaren bitartez.
- Enplegu- eta erretiratze-tasak: txandakatzeko kontratua; garaia baino lehenagoko erretiroen ehunekoa; erretiro partzialaren tasa, enplegua mantenduta, erretiro-adinaren ondotik.

6. FAMILIA-UNITATEEN DIRU-SARRERAK

- Adierazleak:
 - Batez besteko soldata
 - Etxeetako eskura dagoen per capita errenta.
 - Pobrezia arriskuan diren langileen tasa.
 - Diru-sarreraren berme errenten onuradunak (Errenta Bermatua edo Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera.
 - Jasotako pentsioen batez besteko kopurua.
 - Gehieneko eta gutxieneko pentsioen hartzaileen ehunekoa.
 - Kotizazio gabeko erretiro-pentsioen eta baliaezintasun-pentsioen hartzaileak.

7. GIZARTE KOHESIOA, DESBERDINTASUNEN MURRIZKETA ETA GORANZKO MUGIKORTASUNA

- Adierazleak:
 - Desberdintasuna diru-sarreretan, hezkuntza-mailaren arabera.
 - Desberdintasuna diru-sarreretan bertakoen eta jatorri atzeritarreko pertsonen artean
 - Desberdintasuna diru-sarreretan, lan-sektoreen arabera.
 - Desberdintasuna diru-sarreretan, Nafarroako eremuen arabera.

- Sistemaren gaitasuna, abiaburuko desberdintasun sozioekonomikoak murrizteko.
- Desberdintasuneko Gini koefizientea.
- Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen Nazioarteko Konbentzioaren aplikazioa.
- Irisgarritasun unibertsala pertsona guztiendako. Arlo publikoan eta pribatuan.
- Zenbat pertsona errefuxiatuak, zenbatek eskatu duten asiloa, zenbat babesturik, zenbat harreran harturik.
- Garapenaren aldeko Lankidetzara bideratzen den aurrekontuen ehunekoa.
- Belaunaldi barneko mugikortasuna.
- Batez besteko Errenta edo babez besteko Soldata. Nafarroan eta nafar eskualdeetan aplikatzea, bai eta sektore ekonomikoen arabera ere.
- Klaseen igoeraren eta jaitsieraren adierazle dinamikoa (apala, ertaina/apala, ertaina/goikoa), ELGEren irizpideen arabera.
- **Belaunaldi arteko mugikortasuna.**
- **Markov eredua eta kateak.**
- **Belaunaldi-trantsiziorako matrizeak.**
- **Hezkuntzaren balioa belaunaldien arteko mugikortasunean**

8. ZAINKETAK BIZITZAN ZEHAR

- Adierazleak:
 - Kontziliazio-politikak.
 - 3 urteko zenbat neskatiko-mutiko haur zainketa formalean.
 - Zenbat plaza publiko eta zenbat egoitza-baliabide desgaitasuna duten pertsonendako.
 - Zenbat plaza publiko eta haien lurralde-banaketa Eguneko Zentroetan, desgaitasuna duten pertsonendako.
 - Zenbat plaza publiko eta haien lurralde-banaketa, adinekoen egoitza-zentroetan.

- Zenbat plaza publiko eta haien lurralde-banaketa Eguneko Zentroetan.
- Zenbat plaza publiko eta haien lurralde-banaketa autonomia sustatzeko eta mendekotasuna artatzeko zerbitzuetan.
- Etxez Etxeko Laguntzaren estaldura, intentsitatea eta prestazioak.
- Laguntza Teknikorako zerbitzuak desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonendako.
- Laguntzaile Pertsonala prestazioaren estaldura eta intentsitatea.

9. GENERO BERDINTASUNA

- Adierazleak:
 - Genero-indarkeriak eragindako biktimak.
 - Sexu-askatasunaren aurkako delituak.
 - Emakume-salerosketa.
 - Sexuarengatiko lan-jazarpena.
 - Eraso LGTBIfobikoen biktimak.
 - Genero arloko soldata arrakala.
 - Lana, familia eta bizitza bateragarri egitea.
 - Aisia-denborak erabiltzeko estatistikak.
 - Eszedentzia-tasak, lanaldi murrizketak, eta enplegua generoak eraginda uztea.
 - Segregazio horizontala. Lan-sektore feminizatuak eta prekarizatuak. Enplegua denbora partzialean.
 - Segregazio bertikala. Kristalezko sabaia.
 - Unibertsitatean eta Lanbide Heziketan ari diren emakumeen ehunekoak, espezialitatez espezialitate banatuta.

10. BELAUNALDIEN ARTEKO ITUNA

- Adierazleak:
 - Jaiotze-tasa. Erronka demografikoa.
 - Haur pobrezia tasa.
 - Zenbat adingabeko babesgabe, sexuaren arabera.

- Zenbat adingabeko diren abusuen biktima, sexuaren arabera.
- Hurrek eta nerabeek parte hartzeko programak.
- Gazteak enplegurik eta berezko prestakuntzarik gabe.
- Gazteak batez beste zer adinetan laneratzen diren.
- Gazte langabeziaren tasa.
- Nahi gabeko behin-behinekotasun ehunekoa gazte enpleguan.
- Gazteen batez besteko diru-sarreraren ehunekoa urtean, biztanleria guztiarekin alderatuta.
- Gazteen emantzipazioaren batez besteko adina.
- Gazte delinkuentziaren tasa.
- Irisgarritasuna denbora librean, kirol eta kultur jardueretara, kalitateko aisiara, pertsona bakoitzaren adinera egokitua, osasun-iturri gisa.
- Bakardade-arriskuaren neurtzaileak; hirugarren adinean, batez ere.
- Tratu txarrak pairatzen dituzten adinekoen tasa.
- Adinekoendako egoitza-baliabide alternatiboak, egungo zentroez bestelakoak (Lankidetzazko etxebizitzak, apartamentu babestuak...)

11.LURRALDE OREKA

- Adierazleak:
 - Urbanizazio-tasa.
 - Oinarrizko zerbitzuen ehunekoa landa-eremuetan.
 - Irisgarritasuna landa-eremura. Nafarroako komunikazio-bideak egituratzea, Europako gainerakoarekin konektaturik.
 - Etxebizitza birgaituen tasa eta eraginkortasun energetikoaren bilaketa.
 - Lurzoru motaren ehuneko globala (urbanoa, urbanizagarria, industrial, nekazaritzakoa...).
 - Lehen sektorean okupaturiko biztanleriaren ehunekoa.

- Gazteen ehunekoa lehen sektorean ari diren pertsonen artean.
- Era jasangarrian eta ziurtatuan kudeatutako oihan azaleraren ehunekoa
- Auza eskualdeekin batera eginiko proiektuak: autonomia-erkidego mugakideetako eskualdeen eta herrien artean; Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen baitan; Pirinioetako Lan Komunitatearen baitan edota Europako beste eskualde batzuekin batera, Eskualdeen Batzordean.

12.SARBIDE DIGITALA

- Adierazleak:
 - Pertsonen trebetasun digitalen maila.
 - Ekonomia eta Gizarte Digitalak Indizearen konektibitatearen dimentsioa.
 - Arrakala digitala: kokapen geografikoari, adinari, hizkuntzari eta errenta-mailari begira.
 - Gure jardueren digitalizatzeko-maila, industrian, garraioan, ingurumenean, zibersegurtasunean...
 - Nafarroako Digitalizatzeko Planaren betekizunaren ehunekoa.
 - Banda zabalera sarbidea duten Udalerri eta Kontzejuen kopurua.

13.SISTEMA DEMOKRATIKOAREN JASANGARRITASUNA

- Adierazleak:
 - Lisboako Ituneko ezarritako balioak egiazki betetzea.
 - Bake eta Bizikidetzako Kultura, nafar esparrura egokitua.
 - Demokrazia indizeak (V-Dem Institute; EIU).
 - Independentzia judizialaren indizeak (Europako Batzordea; World Economic Forum).
 - Gatazka sozialaren indizeak.
 - Irisgarritasun unibertsala Kulturara, Nafarroako aniztasuna aitorturik (kultura, etnia, ideologia...).
 - Eguneroko prentsarekiko harpidetzako eta irakurketa maila.

- Euskarari buruzko Inkesta Soziolinguistikoa: ezagutza eta erabilera; herritarren hizkuntza-eskubideen errespetua.
 - Parte-hartze demokratikoa: alderdi politikoetarako (gazte elkarteetarako afiliazio tasa)
 - Segurtasuna: Bake Globalaren indizea (Institute for Economics and Peace – Centre for Peace and Conflict Studies)
 - Garapen jasangarriari lotutako arau juridikoak (ingurumeneko babesa, ingurune osasungarriari loturiko eskubideak, eta etorkizuneko belaunaldiek duten eskubidea natur eta hiri ingurune osasungarria izateko)
-
- **EKONOMIA ZIRKULARREKO ADIERAZLEAK**

1. EKOIZPENA ETA KONTSUMOA

Adierazleak:

- Autosufizientzia EBrako lehengai kritikoen ekoizpenean.
- Kontratazio publiko berdea.
- Mix energetiko berdea, energia berriztagarriak eta autokontsumo energetikoa oinarri harturik. Klima-neutraltasuna. Zenbat energia-ekoizle autokontsumoan, kooperatibetako kideak barne.
- Eraginkortasun energetikoa. Lehen mailako energien kontsumoa murriztea. CO2 isuriak jaistea.
- Bonu Jasangarrien Merkatuaren bidezko finantzazioaren ehunekoak.
- Birgaitze eta berrerabilpen tasak.
- Hornikuntza eta saneamendu sareen berrikuntza, banaketa-sistemetan diren gabeziak hobetzeko (ura...).
- Ehunekoak, Ekonomia Sozialaren BPGarekiko.
- Zenbat enpresa Ekonomia Sozialean.
- Zenbat kapital-enpresa birmoldatu edo eraldatu diren Ekonomia Sozialarekin bat.

- Zenbat bazkide eta boluntario bai Ekonomia Sozialean, bai Ekonomia Sozial eta Solidarioan.
- Ikasleak Ekonomia Zirkularrean prestatzea.
- Zenbat enplegu Ekonomia Sozialean.
- Zero kilometroa, ekoizpen-kontsumo arloko politika orokor gisa. Zirkuitu laburrak.
- Mugikortasun jasangarria. Honakoen erabileren indizeak: garraio publikoa, ibilgailu elektrikoak, ibilgailuen erabilera partekatuen indizeak, bizikleten ohiko erabiltzaileen kopurua...
- Zenbat ordaintzen den erabileragatik, eta zenbat, jabetza tradizionalagatik.
- Sekulan aintzat hartu ez den aberastasuna banatzeko erak pentsatzea, “ez produktibotzat” jotzen baita (zainketak).
- Turismoa – Ekoturismoaren jasangarritasun indizea.

2. HONDAKINEN KUDEAKETA

Adierazleak:

- Hondakin sorkuntza: kg, pertsonako; kg, BPGarekiko; zenbat kg hondakin, materialen etxeko kontsumoaren aldean.
- Elikagai-hondarrak.
- Produktuen eta zerbitzuen bizitza-zikloa luzatzea.
- Produktuen eta ontzien itzulketaren eta berrerabilpenaren ehunekoak.
- Hondakin birziklapen-tasa (ontziak, plastikoak, tresna elektrikoak eta elektronikoak, hondakin organikoak, zurezkoak, eraikuntza-materialak, beren bizitza erabilgarriaren bukaeran dauden produktuak...).
- Material zirkularraren tasa.

3. BIGARREN MAILAKO LEHENGAIK

Adierazleak:

- Gai birziklatuek lehengaien eskariari egindako ekarpena.
- Lehengai birziklatuen merkataritza EBko estatu kideen artean eta munduaren gainerakoarekin.

4. LEHIAKORTASUNA ETA BERRIKUNTZA

Adierazleak:

- Inbertsio pribatuen, enpleguaren eta balio erantsi gordinaren ehunekoa ekonomia zirkularreko sektoreetan.
- Lankidetzeta publiko-pribatua, sektore publikoa erabakietan mantenduta.
- Birziklapenarekin eta bigarren mailako lehengaiekin lotutako patenteak, berrikuntzaren ikur.
- I+G+B arloaren ehunekoa BPGarekiko.

5. KANPO DESOREKAK ETA LEHIAKORTASUNEKOAK

- Kontu korrontearen saldoa.
- Nazioarteko inbertsio garbiaren posizioa.
- Egiazko truke-tasa.
- Esportazio-merkatuaren kuotak.
- Lan-kostu unitario nominalaren indizea.

6. BARNE DESOREKAK

- Etxebizitzaren prezioen indizea.
- Sektore pribatuaren kreditu-fluxua, bateratua.
- Sektore pribatuaren zorra, bateratua.
- Aurrekontuko jasangarritasuna, fiskalitate konpentsatuaren pean
- Fiskalitate berdea, printzipio honekin bat: “gehien kutsatzen duenak gehiago ordaintzen du”.
- Finantzazio ehunekoa zor berdea jaulkitzearen bidez, finantzazio jasangarriaren merkatuan (ESG) eskuratua
- Iruzur fiskalaren indizea.
- Zor publiko gordina.
- Industria-sektorearen ehunekoa BPGarekiko.
- “Ekonomia berde” delakoaren ehunekoa BPGarekiko.
- Finantza-sektorearen guztizko pasiboak, ez bateratuak.

- **INGURUMENEN ADIERAZLEAK**

EUROPAKO INGURUMEN AGENTZIAREN INGURUMEN ADIERAZLEEN OINARRIZKO MULTZOAN OINARRITURIK

Adierazlearen izena:

1- Atmosferaren kutsadura eta ozono geruzaren agortzea

1. Substantzia azidifikatzaileen isuriak.
2. Ozonoaren aitzindarien isuriak
3. Lehen maila partikulen isuriak eta bigarren mailako partikulen aintzidnariak.
4. Hiri-eremuetan, airearen kalitatearen muga-balioak gaitzitzea
5. Ekosistemek azidifikazioaren, eutrofizazioaren eta ozono-geruzaren aurrean duten esposizioa.
6. Ozono-geruza agortzen duten substantzien kontsumoa.

2- Biodibertsitatea

7. Espezie mehatxatuen eta babestuen bilakaera indizeak.
8. Eremu izendatuak.
9. Espezieen dibertsitatearen bilakaera indizeak. Espezie exotiko eta inbaditzaileen kopurua eta bilakaera.

3- Klima-aldaketa

10. Berotegi-efektuko gas isuriak eta haien ezabaketa. Politikak eta neurriak.
11. Berotegi-efektuko gasen metaketa atmosferikoak.
12. Europako tenperatura eta tenperatura globala.

4- Lur-ingurunea

13. Lurzoruaren okupazioa.
14. Gune kutsatuen kudeaketan aurrera egitea.
15. Eremu berdearen azalera pertsona bakoitzeko hiri-gunean.

5- Hondakinak

16. Ez-sorkuntza. Kontsumo-eredu berriak eta produktuen nahiz ontzien berrerabilpena.
17. Hiri-hondakinen, ontzien eta gutxiago tratatu ohi diren beste material mota batzuen ekoizpena eta birziklapena (energia berriztagarrietakoak barne, hala nola eguzki-plakak, errota eolikoetako osagaiak, etab.).
18. Hondakin berrerabilien eta birziklatuen tasa pertsona bakoitzeko.
19. Hondakin organikoen erabilera eta tratamendua (konposta, energia sorkuntza...)

6- Ura

20. Baliabide hidriko kontinentalen ustiapena.
21. Ibaietan oxigenoa kontsumitzen duten substantziak.
22. Mantenu gaiak ur kontinentaletan.
23. Bainurako uren kalitatea.
24. Hiriko hondakin-uren tratamendua.
25. Ur-galeren ehunekoak edateko eta nekazaritzarako uren kontsumoetan.
26. Estres hidrikoa eta hartatik eratorritako gatazkak.
27. Edateko uraren kalitatea

7- Nekazaritza

28. Mantenu gaien balantze gordina..
29. Nekazaritza ekologikoan, biologikoan edo jasangarritasun arloko irizpideekin bat ustiatutako azalera.
30. Zenbat ekoizle ekologiko lehen sektorean.
31. Herbiziden, pestiziden eta plagiziden erabilera.
32. Zenbat abeltzaintza-ustiategi intentsiboak eta estentsiboak.

8- Energia

33. Energiaren guztizko kontsumoa.
34. Eraginkortasun energetikoaren neurgailuak.
35. Energia berriztagarrien kontsumoa.
36. Iturri berriztagarrietako elektrizitatea. Sare txikien kopurua.
37. Intentsitate energetikoa.

38. Autokontsumorako ekoiztutako energiaren ehuneko, pertsona bakoitzeko.

9- Arrantza

39.Zenbat espezie exotiko eta inbaditzaile ibaietan.

40.Zenbat arrain-haztegi.

41.Zenbat birpopulaketa programa

42.Zenbat lizentzia aisia-arrantzarako

10.Garraioa

43.Bidaiarien garraio eskaria.

44.Salgaien garraio-eskaria..

45.Erregai alternatibo garbiagoak erabiltzea.

46.0 kilometroko produktuetan egindako gastuaren ehuneko pertsona bakoitzeko.

47.Ibilgailu ez kutsagarrien erabilera (bizikletak, Norberaren Mugikortasunerako Ibilgailua...)

11.Beste kutsadura-iturri batzuei arreta ematea

48.Argi-kutsadura. Eraginkortasun energetikorik eza. Hiri-inguruneetako eragozpenak, zeruaren ikuspenaren kalitatea, orduen murrizketa eta atsedenen kalitatea

49.Kutsadura akustikoa. Trafikotik, gaueko aisialditik eta azpiegitura handietatik eratorritako dezibelioak.